



DEKRETUA

IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE, Idiazabalgo alkate-udalburuak, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 atalak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Deialdi hau egokitzen zaio Diru laguntzen Plan Estrategikoari-Kultur Departamenduaren 05/2026 lerroa-2024ko azaroaren 28an Osoko Bilkuran onartua.

Diru laguntzen 2025-2027 Plan Estrategikoak kultura sustatzeko diru laguntza lerro hau jasotzen du, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. 20 atalak xedatutakoaren arabera, Udal eskumen propioa da "Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea".

Diru laguntza horren oinarriak onartzea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 28an, egindako ohiko bileran. Iragarkia argitaratu zen 2018ko uztailaren 12ko datan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (134. zenbakian) eta ez zen aurkeztu alegaziorik. Behin betiko onarpenaren iragarkia argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko abuztuaren 31n (168. zenbakian).

AINTZAT HARTURIK

Araudia

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskal Tokiko Erakundeei buruzko Legea
- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena. (176 zk.ko EAO, 2006ko uztailaren 25ekoa)
- Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzekeko ordenantza orokorra. (GAO::2017/04/25ean argitaratua, 78. zkia).
- Diru laguntzen Plan Estrategikoa-Kultur Departamenduaren 05/2025 lerroa-2024ko azaroaren 28an Osoko Bilkuran onartua.
- Diru laguntzaren oinarriak (2018ko abuztuaren 31n argitaratuak).

Publizitatea

a) Diru laguntzak eman baino lehen, haiek erregulatzen dituzten oinarriak onartu behar direla, aipatu legeak ezarritako terminoetan, eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu. Bestetik, lege bereko 17.2 artikulua haxe dio: "... diru laguntzak erregulatzen dituzten oinarriak onartu behar direla aurrekontua exekutatzeko oinarrien markoan, Diru laguntzen Ordenantza Orokor baten bidez edo diru laguntza modalitate bakoitzaren ordenantzaren bidez".

b) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra.18 atalak zera dio: "*La publicidad de las subvenciones concedidas por Entidades Locales de menos de 50.000 habitantes podrá realizarse en el tablón de anuncios. Además, cuando se trate de Entidades Locales de más de 5.000 habitantes, en el Diario Oficial correspondiente se publicará un extracto de la resolución por la que se ordena la publicación, indicando los lugares donde se encuentra expuesto su contenido íntegro*".

Hau guztia kontuan harturik,

EBAZTEN DUT:

Lehengoa. Idiazabalgo udalerrian Kultur Ekitaldien Sustapenerako diru laguntzak emateko 2026ko deialdia onartzea



Bigarrena. 1.500€ko gastua onartzea 1.481.01.334.00 2026 (285) aurrekontu aplikazioari egotzia.

Hirugarrena. Deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

Laugarrena. Deialdia Diru laguntzen Datu-Base Nazionalari igortzea, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikulua xedatutakoari jarraituz.

Bosgarrena. Kontabilitate-unitateari horren berri ematea.

ALKATE-UDALBURUAK

Iñaki Alberdi Iparragirre



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026DILA0001-Ebazpena/Decreto (IDIAZABALGO UDALA)